

9. KOSTUEN EGITURA:

Gure kostuak hainbatekoak izango dira:

Lehendabizi online bidez salduko dugu, beraz, webgunearen Hostingaren ordainketa dago, gure kostuak pixkabat minimizatzeko, gure ekipo informatikoa erabili beharko dugu.

Online bidez saltzen ari garen bitartean, biltegi bat beharko dugu, bertan gure makineria eta gure produktu bukatuak gorde ditzagun. Biltegi honen kostua gutxi gorabehera 90.000€-koa izan daiteke eta makineriarena (3D Impresorak) beste 2.000€ inguru. Hauek kostu finkoa izango dute.

Gure lehengaiak lehenago azaldutako enpresetatik lortuko ditugu eta gure biltegiara ekartzeko garraioa ere ordaindu beharko diegu. Hauen kostuak aldakorak izango dira, kopuruaren arabera gehiago edo gutxiago kobratuko digutelako.

Makinak programatuta egoteko, programazio informatiko bat erosiko dugu, honela guk eskatutakoaren arabera eta programazioak ematen dituen pausoekin makineriak bere lana egingo du eta ez dugu langilerik behar izango sekotxe honetan. Makineriaren energiak ere kostu aldakorra izango du, ekoiztuko dugun kopuruaren arabera, erabilitako energia kantitatea ere desberdina izango baita.

Makinak bere lana egindakoan eta behin bezeroaren datuak erregistratuta izanda (gure webgunearen laguntzarekin), guk egingo ditugu paketeak eta behar den lekura bidaliko ditugu. Bidalketak egiteko ere garraioa beharko dugu eta honek ere bere kostua izango du.

Hasieran gure artean egingo dugu lana, ez ditugu soldata finkorik ezarriko gure buruari (hasieran), izan ere, ateratako etekinen arabera izango dira, eta behin gure negozioa ondo dijoala ikusita, eta eskaera gehiago izango ditugunean, langileak ere kontratatuko ditugu eta soldatak ordaindu beharko dizkiegu.

Horrekin batera, gure sarrerak handituko direnean eta online bidezko salmentak arrakastatsuak izaten hasiko direnean, denda fisiko bat irekiko genuke, horretarako beste lokal bat beharko dugu eta hori hordaintzeko ere kostu finkoak izango genituzke.

Bestalde, beherapenak eta deskontuak ere egin nahiko genituzke, esaterako, 'black friday' denean, gabonetan, aste santutan, eta honelako festa eta ospakizun handietan. Baina hori egin ahal izateko lehenengo sarrerak eduki beharko genituzke, beraz, hasierako salmentatan ezin izango genituzke honelakoak aplikatu.

Honakoak dira *hasieran* izango ditugun gutxi gora beherako kostuak:

Ordenagailua	2.000€
Webgunearen Hosting-a (Hostinger)	15€/hilabetean
Biltegia	90.000€
3D inpresorak	2.000€
Programa informatikoa	10.000€
Lehengaien garraioa (aldakorra)	60€/hilabetean
Garraio-enpresa (bezeroei bidalketak egiteko)	50€/hilabetean
Lehengaiak (enpresa horiei ordaindu)	1.500€/hilabetean
GUZTIRA	105.625€

Kostu guzti hauei aurre egiteko 150.000€-ko mailegu bat eskatuko dugu enpresa martxan jartzeko.

Guzti hori esanda, gure helburua ez da beste marka eta enpresa batzuekin lehiakorak izatea, baizik eta balioan oinarritutako enpresa bat izatea. Gure produktuaren kalitatearengatik iritsi nahi dugu bezeroarengana, ez dadila izan kostuan oinarritutakoa bakarrik.